



nikus
ker.

UNIBERTSITATEKO PANELA
PLATAFORMA DIGITALAK ETA X
2023-2024



AURKIBIDEA

IKUSIKER	2
1. FITXA TEKNIKOA	3
2. EMAITZAK	4
PLATAFORMA DIGITALAK	4
ESKURA DITUZTEN PLATAFORMA DIGITALAK	4
PLATAFORMA DIGITALEN ERABILERA MAIZTASUNA	7
PLATAFORMA DIGITALETAN EGUNERO PASATZEN DUTEN DENBORA	8
PLATAFORMA DIGITALETAN IKUSTEN DITUZTEN EDUKIEN HIZKUNTZA	9
PLATAFORMA DIGITALETAKO EDUKIAK IKUSTEKO AZPIDATZIRIEN ERABILERA	10
PLATAFORMA DIGITALETAN IKUSI DUTEN AZKEN EDUKIA ZEIN IZAN DEN	11
PLATAFORMA DIGITALETAN IKUSI DUTEN AZKEN EDUKIAREN PLATAFORMA	11
PLATAFORMA DIGITALETAN IKUSITAKO AZKEN EDUKIA IKUSTEKO GAILUA	12
PLATAFORMA DIGITALETAN EDUKIAK AUKERATZEKO GOMENDIOAK	13
PLATAFORMA DIGITALETAKO EDUKIAK AUKERATZEKO DENBORA	14
PLATAFORMA DIGITALEI NOTA	15
X	16
X-EN KONTUA ETA NOLAKOA	16
X ZENBATERO ERABILTZEN DUTEN	18
X-EN EGUNERO PASATZEN DUTEN DENBORA	18
X-EKO EKINTZAK ZENBATERO EGITEN DITUZTEN	19
X-EKO GAI EDO KATEGORIA GUSTUKOENAK	20
X-EKO EDUKIEN HIZKUNTZA	21
X-ERAKO SORTZEN DITUZTEN TXIOEN HIZKUNTZA	21
X-I NOTA	22
LABURREAN ESANDA	22

IKUSIKER

Gazteek ikus-entzunezkoak kontsumitzeko eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) erabiltzeko ohiturak, moduak eta joerak aztertzen ditu IKUSIKER Ikus-entzunezkoen Behategiak. 2018/2019 ikasturtean sortu zen eta gaur egun NOR Ikerketa Taldeaz gain EITBk, Tabakalerak eta Kulturaren Euskal Behatokiak osatzen dute IKUSIKER Behategia.



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus



1. FITXA TEKNIKOA

2023-2024ko ikasturtean, IKUSIKERren Unibertsitateko panelean bat egiten dute Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA/NUP) bi mila eta zortzihun ikasle pasatxok. Laginean lurralde, jakintza-arlo, fakultate eta ikasketa-maila desberdinetako gazteak daude. Landa-lanari dagokionez, ikasturtearen hasieran aurrez aurre ikasgeletan betetzen dute lehen inkesta eta, hortik aurrera, panelean parte hartzeko baiezkua ematen duten ikasleei Whatsappez bidaltzen zaizkie hurrengoko zazpi galdetegiak, hilean behingo maiztasunarekin.

2023-2024 ikasturteko IKUSIKERren Unibertsitateko panela, UPV/EHUko eta UPNA/NUPEko ikasle guztien errepresentagarri da. Unibertso horren kopurua lortzeko, laginaren datuen gaineko ponderazioa egin da, eta horretarako, aldagai hauek erabili dira: sexua eta unibertsitatea, probintzia, ikasketa eremua, eta ikasketa maila.

Txosten honetan aurkitu daitezke 2024ko otsailaren 13tik 21era bitartean plataforma digitalei eta X sare sozialari buruz egindako inkestaren emaitzak. Guztira 2021 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.


2. EMAITZAK

PLATAFORMA DIGITALAK

Plataforma digitalek hazkunde esponentziala izan dute azken hamarkadan. Entreenimendu digitalerako bitarteko nagusi bihurtu dira, eta horren adierazle da, lehen ikusi dugun bezala, gazteei telebista eta plataforma digitalen arteko bereizketa egitea kosta egiten zaiela. Jarraian, Unibertsitateko gazteek bertan egiten dituzten kontsumoetan sakonduko da, eta besteak beste, eskura dituzten plataformak zeintzuk diren, zenbateko maiztasunarekin erabiltzen dituzten, edo edukiak zein hizkuntzatan ikusten dituzten aztertu da. Datuak, sexuaren, ikasketa-mailaren eta ikasketaremuaren arabera ere, xehatu dira.


Lehendabizi, UPV/EHU eta UPNA/NUPeke gazteek eskura dituzten plataforma digitalak zeintzuk diren jakin nahi izan da. Beheko grafikoak argi erakusten du, ikasleek bereziki Netflix eta Amazon Prime Video edukitzea lehenesten dituztela. Disney+ da ondoren gehienek eskura duten plataforma, eta jarraian, Movistar+. Doakoa den Primeranen, % 11 baino ez da erregistratu.

1. Irudia- Eskura dituzten plataforma digitalak




Emakumezkoak dira bereziki plataforma digitalen zale. Netflix eta Amazon Prime Video ikusteko aukera dutenen artean, gehiago dira neskak, ia hamar puntuko aldearekin. Disney+ da nesken hirugarren plataforma gustukoena. Mutilei dagokienez, datua handiago da Movistar+ eta kirolarekin lotutako DaZnen kasuan. Primeran plataforman, neska gehiago erregistratu da.

2. Irudia- Eskura dituzten plataforma digitalak, sexuaren arabera




Ikasketa-mailaren araberako azterketak erakusten du, gazteenak direla plataforma gehiago eskura dituztenak. Beraiek dira nagusi Netflixen, Amazon Prime Videon, eta baita Disney+-en, eta Movistar+-en ere. Euskal Telebistaren doako plataforma digitalean, 3. mailako neska-mutil gehiago erregistratu da.

3. Irudia- Eskura dituzten plataforma digitalak, ikasketa-mailaren arabera




Plataforma digitalak unibertsitarien eguneroko kontsumoen parte dira. Astean 2-5 aldiz erabiltzen dituzte ikasle gehienek (% 32), baina % 18k egunero ikusten du edukiren bat bertan. Eta emakumezkoak plataforma digitalen zale handiagoak diren heinean, erabili ere, gehiago egiten dituzte.

4. Irudia- Plataforma digitalak zenbatero erabiltzen dituzten. Datu orokorra, eta sexuaren arabera




Ikasketa-mailaren araberako azterketak erakusten du, astean 2-5 arteko maiztasuna dela ikasle gehienek aukera, eta, gainera oso antzeko datuetan. Desberdintasun handiena eguneroko kontsumoan ageri da; 1.mailako gazteak dira hor nagusi.

5. Irudia- Plataforma digitalak zenbatero erabiltzen dituzten, ikasketa mailaren arabera




Hurrengo grafikoak ikasketa-eremuaren arabera kontsumo maiztasunak erakusten ditu. Osasun Zientzietako, Gizarte eta Lege Zientzietako, eta Arteak eta Giza Zientzietako gazteak dira plataforma digitaletako edukiak astean 2-5 aldiz gehien ikusten dituztenak. Eguneroko kontsumo gehiago egiten dute Osasun Zientzietako eta Zientzietako neska-mutilek.

6. Irudia- Plataforma digitalak zenbatero erabiltzen dituzten, ikasketa-eremuaren arabera




Azken urteetan, plataforma digitalek beraien edukien iraupena murriztu egin dute, eta gaur gaurkoz, oso ohikoa da kapitulu laburreko serieak aurkitzea, ordu erdi artekoak gehienak. Horren erakusle da, beheko grafikoa. Ikasle gehienek ordubete baino gutxiagoz konektatzen dira, eta arrakasta berezia lortzen dute ordu erdi arteko edukiek.

7. Irudia- Egunero plataforma digitalean pasatzen duten denbora. Datu orokorra eta sexuaren arabera




Plataforma digital gehienek edukiaren audioa aldatzeko aukera ahalbidetu dute azken urteetan, eta hurrengo grafikoak erakusten du, gaztelaniaren pisua oraindik oso handia bada ere, ingelesak geroz eta garrantzia handiagoa hartu duela gazteen artean. Ikasleen % 1ek baino ez du adierazi euskarazko edukiak kontsumitzen dituenik plataformetan.

8. Irudia - Plataforma digitalean ikusten dituzten edukien hizkuntza




Euskarazko edukien kontsumoa ez dago panelkideen euskara ezagutzara baldintzatua, izan ere, euskaraz irakurtzeko, idazteko eta hitz egiteko gaitasuna duten unibertsitarien artean (% 74) ehuneko berdinak adierazi du euskarazko edukiak ikusten dituela plataformetan, hau da, % 1ek.

9. Irudia - Plataforma digitaletan ikusten dituzten edukien hizkuntza, euskara lehen hizkuntza moduan dutenek



Era berean, azpidatzien inguruan ere galdetu zaie UPV/EHU eta UPNA/NUPeko ikasleei, eta erdiak adierazi du ez dituela erabiltzen. % 21ek jatorrizko bertsioari ingelesezko azpidatziak jartzeko ohitura dauka, eta % 18k gaztelaniazkoak.

10. Irudia -Azpidatzien erabilera plataforma digitaletako edukietarako



Jarraian, plataforma digitaletan ikusi duten azken seriea, pelikula, bideoa edo dokumentala zein izan den aztertu da. Edukien eskaintza izugarri handitu den honetan, unibertsitarien artean eduki arrakastatsuenak zeintzuk diren jakin nahi izan da.


Hurrengo hitz-lainoak, ikasleek plataforma digitaletan 2024ko otsailean ikusitako azken edukiak biltzen ditu.

11. Irudia - Streaming bidez ikusitako azken pelikula, serie edo dokumentala zein izan den.




Netflix erabili dute gazteen ia erdiak azken ikustaldi horretarako, eta Amazon Prime Video ikasleen hamarretik bik. Eta beheko grafikoak beste behin, bi platafoma hauek unibertsitarien artean duten arrakasta azaltzen du.

12. Irudia - Streaming bidez ikusitako azken pelikula, serie edo dokumentala, zein plataformatan zegoen




Internetera konektatutako telebista izan da gailurik erabiliena plataforma digitaletan gazteek egin duten azken ikustaldi horretan. Ondoren, ordenagailu eramangarria aukera izan da aipatuena. Mugikor bidez % 12k ikusi du edukia. Sexuaren araberako alderaketak erakusten du, gizonezkoen hamarretik lauk hautatu duela interneterako konketatutako telebista. Nesken kasuan ere, gehinek gailu berdina erabili dute, baina ehuneko ia berdinak ordenagailu eramangarria aukeratu du.

13. Irudia -Streaming bidez ikusitako azken pelikula, serie edo dokumentala, zein aparailu bidez ikusi duten. Datu orokorra eta sexuaren arabera



Lagunen gomendioei jarraiki erabakitzen dute unibertsitariak plataforma digitaletan ikusiko dituzten edukiak zeintzuk izango diren. Sare sozialetan ikusten dutena da ondoren beraiantzako iturri fidagarriena. Plataforma digitalak berak emandako gomendioei jarraituz, soilik % 12k adierazi du ikus-entzuneko bat edo beste aukeratzen duela. Kasu honetan, grafikoak ez du nesken eta mutilen arteko desberdintasun handiegirik erakusten.


14. Irudia -Plataforma digitaletan zer ikusiko duten erabakitzeke orduan, gomendioak nondik jasotzen dituzten. Datu orokorra eta sexuaren arabera



Geroz eta plataforma digital gehiago, eta geroz eta eduki gehiago aukeran. Plataformen edukien eskaintza izugarriak, erabiltzaile askorengan nekea eta estutasuna sortzen ditu, pantailaren aurrean jartzen diren aldiro.


Horren harira, unibertsitariei galdetu zaie, noizbait, sentipen hori izan duten. Grafikoak erakusten duenez, unibertsitarien gehiengoak adierazi du nekea sentitu duela egoera horren aurrean (% 36k batzuetan, eta % 29k askotan). Beste muturrean kokatu direnen datua askoz txikiagoa da.

15. Irudia -Plataforma digitaletan zer ikusiko duten erabakitzeke, denbora asko galtzen dutela sentitzen badute. Datu orokorra eta sexuaren arabera



Oro har, oso puntuazio ona jasotzen dute plataforma digitalek. 8ko nota izan da aipatuena, eta emakumezkoak izan dira bereizki eskuzabalak. Batzaz beste, 7,4ko emaitza lortu dute plataforma digitalek UPV/EHU eta UPNA/NUPeke ikasleen artean.

16. Irudia -Plataforma digitalei ematen dieten nota. Datu orokorra eta sexuaren arabera




X (TWITTER)

Txostenaren azken atal honetan, X sare sozialari buruz 2024ko otsailaren 13ko astean unibertsitarien artean egindako inkestaren emaitzak aztertuko dira.

Besteak beste, X-en kontua duten, zenbatero erabiltzen duten edo X-ek ahalbidetzen dituen ekintzetatik zeintzuk darabiltzaten aztertu da.


Ikasleen % 59k adierazi du kontua duela X-en. Horietatik, % 31k kontu pribatua dauka, % 23k publikoa, eta % 5ek izan baduen arren, ez daki zehazten zein motatako den. Gazteen hamarretik lauk adierazi du ez duela perfilik sortu X-n

17. Irudia - X-en kontua eta nolakoa




Kontua duten % 59 horien artean, gehiago dira mutilak. Era berean, neska gehiago kokatu da kontu pribatua dutenen artean, eta aldiz, mutilei dagokienez, oso antzeko datua lortu dute kontu pribatu eta publikoa dutenak. X-en perfilik sortu ez dutenen kasuan, neskak, dezente gehiago dira.

18. Irudia - X-en kontua eta nolakoa, sexuaren arabera




Eta aurreiritziek X sare soziala adinean nagusiago direnen eremu dela esatera bultzarazten badu ere, datuek erakusten dute, 1. eta 3. mailako ikasle kopuru berdinak daukala kontua.

19. Irudia - X-en kontua eta nolakoa, ikasketa-mailaren arabera




Unibertsitarien hamarretik seik baino ez dute X erabiltzen, eta datua gainerako sare sozialekin alderatzen badugu, txikia da. Erabilera maiztasunak ere joera berdina erakusten du. Gazteen ia erdiak adierazi du, ez duela X inoiz erabiltzen, baina aplikazioa darabiltenen artean, eguneroko, eta egunean behineko maiztasunak izan dira aipatuena. Kontsumo horietan, mutilak dira gehiago.

20. Irudia -Zenbatero erabiltzen duten X





Eguneroko maiztasunetan oso ikasle gutxi kokatu da, eta horien artean, gehienek 15 minutu baino gutxiago eskaintzen dizkiote sare sozial honi egunero.

21. Irudia -Egunero, X-en pasatzen duten denbora




Ondoren, X-ek ahalbitzen dituen ekintzak, unibertsitariak zenbatero egiten dituzten aztertu da. Erabiltzaile hutsak, parte hartzaileak, edo sortzaileak diren jakin nahi izan da. Hurrengo bi grafikoek erakusten dute, erabiltzaile pasiboak direla gehienak. Besteen txioak irakurtzeko zabaltzen dute X ikasleen % 31k egunero edo egunean behin baino gehagotan, aldiz, txio horietan soilik % 20k ematen dio bihotzari, eta % 8k baino ez du retweet egiten. Era berean, X sare sozialean kontua dutenen % 35ek adierazi du, ez duela inoiz txiorik idazten, eta % 49k ez dituela inoiz *fleet*-ak igotzen.

22. Irudiak -X-eko ekintzak, zenbatero egiten dituzten




Komedia, memeak eta parodiak kategoriari lotutako edukiak ikusteko zabaltzen dute gehienek X. Futbola, eta albisteak eta politika dira jarraian ikasleek gehien jarraitzen dituzten gaiak. Mutilen kasuan futbolari lotutako edukiak dira arrakasta gehien lortzen dutenak. Neskak, umorearekin zerikusia duten edukiak jarraitzeko, eta gizarteko gai eta pertsonari buruzkoak jakiteko erabiltzen dute batez ere X.

23. Irudia -X-eko gai edo kategorია gustukoena. Datu orokorra, eta sexuaren arabera




X-en kontua dutenen artean, gehienek gaztelaniazko edukiak kontsumitzen dituzte. % 4k bakarrik adierazi du, euskaraz idatzitako txioak irakurtzen dituela.

24. Irudia -X-eko edukien hizkuntza




Lehen ere ikusi dugu, oro har, X-en txioak idazteko ohiturarik ez dutela unibertsitariak, baina sortzen dituzten horien artean, zein hizkuntza aukeratzen duten jakin nahi izan da. Ariketa hori egiten dutenen artean, gehienek, gaztelania aukeratzen dute. Txioak euskaraz gaztelaniaz baino gehiago idazten dituela esan du gazteen % 3k, eta beti euskara hutsean % 1ek.

25. Irudia -X-erako sortzen dituzten edukien hizkuntza



Amaitzeko, X sare sozialari, ematen dioten puntuazioa zehazteko eskatu zaie unibertsitariei. Ikasleen ia erdiak notarik txarra jarri dio, eta neskak izan dira oro har ezkorragoak. Bataz besteko emaitza, 4 izan da, eta hortaz, oso balorazioa negatiboa lortzen du X-ek UPV/EHU eta UPNA/NUPEko gazteen artean.

26. Irudia -X-i ematen dioten nota



LABURREAN ESANDA

- Unibertsitariak oso plataforma digital zaleak dira, eta hauek beraien ohiko kontsumoen parte dira.
- Netflix eta Amazon Prime Video dira arrakasta gehien duten plataformak, baina Disney+, Movistar+ eta kirolarekin lotutako DaZn ere, asko erabiltzen dituzte.
- Astean 2-5 arteko maiztasunetan erabiltzen dituzte ikasle gehienek plataforma digitalak, baina ehuneko handi batek ere, egunero ikusten du edukiren bat bertan. Bereziki, ordu erdiz konektatazen dira.

- Gaztelaniazko edukiak kontsumitzen dituzte plataforma digitaletan, baina ingelesak geroz eta garrantzia handiagoa hartu du gazteen kontsumoetan. Era berean, ikasleen erdiak adierazi du ez dituela azpidatziak erabiltzen.
- Lagunen gomendioei jarraiki erabakitzen dute unibertsitariak plataforma digitaletan ikusiko dituzten edukiak zeintzuk izango diren. Sare sozialetan irakurtzen dutena da ondoren beraientzako iturri fidagarriena.
- Unibertsitarien gehiengoak nekea sentitu du plataforma zer ikusiko duen erabakitzerako orduan, dagoen eduki kopuru handiarengatik.
- Bataz beste, 7,4ko emaitza lortu dute plataforma digitalek UPV/EHU eta UPNA/NUPekeko ikasleen artean.
- X sare sozialean, ikasleen % 59k kontua dauka. Gazteen hamarretik lauk adierazi du ez duela perfilik sortu sare sozial honetan. Kontua duten % 59 horien artean, gehiago dira mutilak.
- Gazteen ia erdiak ez du X inoiz erabiltzen, baina aplikazioa darabiltenen artean, eguneroko, eta egunean behineko maiztasunak izan dira aipatuena.
- X-eko erabiltzaile hutsak dira gehienak. Besteen txioak irakurtzeko zabaltzen dute aplikazioa ikasle gehienak, baina oso gutxi dira X-en txioak idazten dituztenak.
- Komedia, memeak eta parodiak kategoriari lotutako edukiak ikusteko zabaltzen dute gehienek X. Futbola, eta albisteak eta politika dira jarraian ikasleek gehien jarraitzen dituzten gaiak.
- X-en kontua dutenen artean, gehienek gaztelaniazko edukiak kontsumitzen dituzte, eta txioak sortzen dituzten ikasle gutxi horiek ere, gaztelania aukeratzen dute.
- Bataz beste, 4ko puntuazioa eman diote unibertsitariak X-i, eta hortaz, oso balorazioa negatiboa lortzen du UPV/EHU eta UPNA/NUPekeko gazteen artean.